**ERREPORTAJEA** OTSAILAREN 23AN "EXPRESION SONORA" MUSIKA TALDEA HERRIKO ANTZOKIAN

**GEHIGARRIA** GAZTIA NAIZ BARREN **KIROLA** UDALAREN ESKU KROS MUGERZAREN ANTOLAKUNTZA

# BARREN
ASTEKARIA

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A 2001ko otsailaren 16a/VIII. urtea/351. zkia.




## 31 urte eta gero...

# hez tek

h e z i k e t a r a k o t e k n ologia




## zure in.ormatikako akademia berria

**BULEGO NAGUSIA**
Tel. Fax• 943 74 85 86
hezitekrwhezik.com

**ELGOIBAR 2087o**
Ubitarte Plaza, 3 behea

**BERGARA 205**
Telesforo Atanzacli, 3

IKASTARO BEREZIAK: SOLID EDGE, AUTOCAD, KONTABILITATE TEORIKOA...

# (10 BENETAKOSUKALBEKOTRESNA ALEMCIARBA



Gure produktuen erakusketara GONBIOATZEN zaitugu ELGOIBABKO KULTUR EIBEKO sotoan, Nafarroa plazan. Bihar larunhata, hilak 11, goizekolletatik gaueko 9etara.

Zatez gure azken herrIkuntza ezagutzera

**SUKALDEKO ERNEGEA**



SUKALIDARITZA KLASEAk izango dlra,
goizeko iletan eta arratsaldeko 5etan,
AMAIA 111E1 dietistaren laguntzarekin.
Gaur egun elikadurak duen garrantziaz mintzatuko da.

Erakustalilira anertzen threnen artean LONDRESERA BIDAIA eta RAINBAT OPARI ZOZKETATUKO DIRA.



## Usteak ustel

Arrazen arteko nagusitasunak ez duela oinarri zientifikorik jakin dugu aste honetan, etnia desberdineko gizakien artean genetika aldetik ez dago desberdintasun nabarmenik. Gizaki guztietan material genetikoaren %99'99 berdina da, desberdintasunak %0'01ean daude. Hauxe da Giza Genomaren proiektuan lanean ari diren ikertzaileek ezagutzera eman duten ondorioetako bat.

Harridura sortu duten datu asko igorri dituzte. [zan ere, giza genomak, edo ADNaren sekuentzia osoak, 26.000 eta 40.000 gene inguru dituela uste dute ikertzaileek, eta ez orain dela gutxi arte pentsatzen zuten bezala 100.000 inguru. Beraz, lehen konparazio batean gizakiek arratoiek baino gene bakar batzuk besterik ez dituztela aipatu da.

Washington, Tokio, Paris, Londres eta Berlinen aurkeztu zuten ikerketa proiektu honetan diharduten bi taldeek mapa genetikoa batera egin zuten, hala ere, betidanik bien artean izan den lehia agerian gertatu zen. Talde pribatuaren eta publikoaren artean dagoen eztabaida datuen izaeran datza, batzuek zientzialari ororen esku izatea nahi dute, besteek trabaren bat edo beste jartzen dute.

**Leire Urkidi**



# Irribarre bat bizitzari

Ostiraletik nekien idatzia egin behar nuela. Baina, asteburuan beste gauza batzuk egin ditut: gauean irten, domeka lasai hartu..., eta astelehenean, lurreratu beharra izan dut. Astelehenean, lanean nagoen bitartean, astean zehar egin beharrekoak pentsatzen ditut eta zeregin batzuk egin bitartean, igarotzen zait eguna muturren aurrean. Asteartea jadanik. Asteazkenerako idatzia entregatu behar dudala konturatzen naiz. Zertaz idatzi behar dudan pentsatu, nola idatzi, hasi, segi eta bukaeraraino ez gelditzea komeni zait. Behin hasiz gero, buka ezazu momentuan, bestela asteazkena pasatuko da eta idatzia oraindik laugarren lerroan izango duzu!, pentsatzen dut. Ordu bat besterik ez dut behar, baina ordu horrek konzentrazioa eskatzen du.

Hau da lanetik kanpo beste ekintza batzuk jorratzen ditugunoi batzuetan gertatzen zaiguna. Baina zer egingo diogu, lasaitasunarekin hartu eta irribarre bat egin bizitzari!

**Jokin Martinez**

errePoRtajea ........................ 7
motzak ........................................ 8
gehigarria .......................................................... 11
kiROlAk .......................................................... 20
aGenda ...................................... 24

2001-11-16

# Urruzunoren begi izkutua



Bapatean, Elgoibar osoa perretxikuz bete zen. Izurrite bat zirudien. Baina ez guk ezagutzen ditugun ohikoak. Perretxiku hauek josteko makina txikiak ziren. Poliki-poliki baina progresiboki, kopuruz haunditzen eta biderkatzen hasi ziren eta horrela egun batean, josteko-makina-perretxiku lagun talde handi batek Sigma auzoa sortu zuen, bere frontoi eta guzti. Kalitatezkoak zirenez, ospea irabazi eta beste herrialde batzuetara zabaldu ziren. Urrutiraino iritsi ziren. Eta beraien kabuz burututako lan gogorrak omentzeko, beraien biltegi nagusiaren aurrean, Txankakua zubiaren ondoan, josteko-makina-perretxiku erraldoi bat eraiki zuten. lnork ez zituen ahaztu inoiz, Elgoibarko Josteko Makina PetTetxikuak.

**Eguzkilie Aranberri**

URIWZUNO LITERkTUR TALDEA

## ELGOIBARTAR GUZTIOI, MILA ESKER!

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak zera dio: -Pertsona orok nazionalitate bat izateko eskubidea du. - Inori ezin zaio bere nazionalitatea arbitrarioki ezabatu.

Hori dela eta, pasa den ekainean inoiz Euskal Herrian egin den sinadura bilketarik erraldoiena jarri genuen abian, Udalbiltzari Euskal Herritartasun Nazio Agiria sortu eta ofizialdu dezan eskatzeko.

Ekimen hau, guztiz demokratikoa eta baketsua, norberaren sinaduran zein atxikimendu librean oinarrituta, gure eskubide zibil eta politikoak egunero urratu eta euren hizkuntza, hezkuntza, legeak, bandera eta abar inposatzen dizkiguten espainiar eta frantses estatuei desobeditzeko ariketa praktikoa izan dela azpimarratu nahi dugu. Orain, sinadura bilketa hau bere amaierara heltzen ari denean, guztiz arrakastatsua izan dela esan beharra dugu. Euskal Herri mailan jasotako atxikimenduak 125.000tik gorakoak izan baitira eta Elgoibarren 1.001.1 pasatu gara. Horregatik, Bai Euskal Herriari Ekimena osatzen dugun gizon-emakumeok eskerrak eman nahi dizkiegu kanpaina honetan parte hartu duten elgoibartar guztiei. Eta aurrerantzean Euskal Herriaren eskubide zibil eta politikoak gauzatzearen aldeko gonbitea luzatu nahi diegu elgoibartar guztiei, dernokraziaren aldeko apustuak bakean eta askatasunean oinarritutako etorkizuna irabaztea ahalbidetuko duelakoan.

Euskal Herria sei herrialdez osatutako herri bakarra da. Nazio bat gara. Gora Euskal Herria!

**J.K.M.**

**Bai Euskal Herriari Ekimenaren izenean**

**NAN. 15377582**


ASTEKARIA

BaRRen

Nalarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
1: 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E•maila:
barren@topagunea_oorn
Helbide informatikoa:
www.ihardun.comfbarren
ARGITARATZAILEA
EloOdano 12arrA

LAGUIRDULEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Eli Atzpuru KAzErAmmt IrallAgIrreazaldegi, Asier Orbea PURLIZITATEA Andaitz Agirregomezkorta MAKETATZALEA Bea Ansola ADLONISTRAZIOA Amaia Rochigez Gensaraft. Rela Alvarez, M. Angeles Ortuosle. KoLAsunArzruleAk Arnam Lanz, Unar Argarale, Eguzkire Aranbeni, Lorea Perez de Albeniz, Jokm Martinez, Aitor Zabaleta. Leire Urkidi.0lga Unzilla. Montse Arregi, Juanito Gorostiza. Iker Maguragi. Jon Gurrutxaga, Jon Eugi,Amboa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L T. AZALCK0 ESALOIA Getzan Garateren Ibundk INPRIMAIEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.000 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKO IZARIU
■ 31,71.1. ,LIALILA

*Eigaibarko Watak. Easiat Jaariaritzulto Kaitura Sarlak eta Font Aletatidiak dint: la,gund utako*

MDANOBAT

GOITI
oilwo DANORAT

## KEXAK



• Emakume batek honako kexa hau bidali digu: "IMHtik kiroldegira doan bidezidorrean ez dago argirik. Bide horretatik jende ugari pasatzen da eta bonbila bakarra dago. Nire ustez, lektt hori argiztatzea garrantzitsua da".



Gazte bat etorri zaigu erredakziora honako kexa hau azaltzera: "Urasandiko U-an argi bakarra dago eta alde bat ilun-iluna gelditzen da. Argi gehiago ipini beharko lirateke'", dio gaztetxo honek.

## GRANADA



Dori Lemos elgoibartarra Granadan izan zen pasa den asteburuan. Ostiral arratsaldean irten eta igande iluntzean itzuli zen etxera. Andaluzia aldera joateko arrazoi nagusia, larunbatean Granadan ezkontza bat zuela zen. Joan beharra zuenez, hiria sakonago ezagutzeko aukera aprobetxa zezakeela pentsatu zuen eta bidaia programatu zioten bidaia agentzian, "Denbora gutxian ahalik eta gauza gehien ikustea zen nire asmoa. Hori dela eta hegazkinez joan nintzen, eta lehen aldia izan bazen ere, primeran irten zen dena". Bidaia zoragarria izan zela aitortu digu, "eguraldia lagun izan genuen, hotelean oso ondo hartu gintuzten eta gainera, dena programaturik geneukan moduan irten zen, atzerapenik gabe". Besteak beste, Alhambra, Granadako katedrala, unibertsitateak dauden Lorcako parkea eta Alde Zaharra bisitatu zituen. Gehien gustatu zitzaiona, berriz, Alhambra izan zen, "irudi eta apaingarri denak eskuz eginak daudela jakiteak harridura sortarazten du. Lehoien iturria eta jardinak ere ikusgarriak dira". Dorik aipatu digunez izugarri gustatzen zaio bidaiatzea, baina lana dela eta ezin izaten du nahi adina irteera egin.

**41"**

**ƷIL3A0 EXPVESS**

BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA

Foruen enparantza, 3 • Tel: 943 74 39 12



2000-11-16

# Elgoibarko Beatlesak

*"Expresian Sonora" musika taldea 1969. urteko irailean sortu zuten lau elgoibartarrek: Patxi Garcia (gitarra erritmikoal, Gabi Agirregomezkorta (gitarra), Luis Mari Arakistain (bateria) eta Alfonso Gui116 (baxua). Musika zaletasunak buitzatuta osatu zuten taldea. Sortu eta berehala, 70eko udaberrian, lortu zuten lehen arrakasta, Donostiako "Concurso de Artistas Noveles" hasiberrientzako txapelketa irabazi baitzuten. Sari honek ospe handia eman zion taldeari, eta garaiko gazte jendearen a1aigarri izan ziren Gipuzkoan eta Bizkaian antolatzen ziren hainbat dantza saioetan. 1971an desegin zen "Expresion Sonora", "Koska" taldearen jaiotzarekin. Orain, 31 urte pasa direnean, "Expresian Sonora" taidearen itzulera biziko dugu hilaren 23an, barixakuan, kontzertua eskainiko baitute Herriko Antzokian. Lehengo garaiak gogoratzeko eta kontzertuari buruz hitz egiteko entsaiatzeko erabilizen duten tokalean elkartu ginen beraiekin.*

Egin diegun lehenengo galdera zera izan da: zergatik erabaki duzue "Expresi6n Sonora" berpiztea? "Lehengo musika joaz ondo pasatzeko modu bat zela iruditu zitzaigun eta ostegunero elkartzen hasi ginen duela bi urte eta erdi. Beste batzuk kirola egiteko, txikiteatzeko... elkartzen diren moduan". Argi dago ez zaretela hilaren 23ko kontzertua prestatzeko elkartu, "ez, aurrez, lagun baten 50. urtebetzea zela-eta, jai pribatu baten jo genuen. Esperientziarekin gustura geratu ginen eta errepikatzeko gogoarekin. Gainera, musika talde batek publikoarekin du zentzua eta horrelako kontzertu bat emateko aukera izatia aliziente bat gehiago da guretzat".



Bob Dylanen kantu ezagun batek dioen moduan, gauzak asko aldatu dira, 30 urte ez baitira alferrik pasatzen. Laukote honek argazkietan ageri duen itxuraz gain, bizimodua eta musika bera ere asko aldatu direla aipatu digute. Dena den, ilusioz beteriko garai bat bezala gogoratzen dituzte urte haiek, "adinagatik ilusioz gainezka geunden eta intentsitate ikaragarriarekin bizi izan genituen urte haiek".

> Jende askok "Expresin sonora"-ren kontzertuetan entzun zituen lehen aldiz "Beatles" edo " The Animals" moduko taldeen abestiak

**ESTILOA**

Garai hartan modan zegoen rock britainiarra egiten zuen "Expresi6n Sonora" taldeak, eta honen barruan rythin & blues estiloko musika. "Garaiko taldeen kantuak kopiatuz ikasi genuen musika jotzen. Horixe izan zen gure unibertsitatea. "Beatles", "Rolling Srones", "The Animals"... taldeen kantuak jotzen genituen". Dena den, inork ez dezala pentsa garai hartan edozeinek ezagutzen zituenik talde hauek, "Britainia Handian modan zeuden taldeak izan arren, minoria batek bakarrik entzuten zituen hemen, batez ere hirietan bizi zen jendeak-eta. Guk zenbait irratiren bidez entzuten genituen taldeok. Elgoibarren hauen diskoak topatzea zaila zen, eta zeudenak ez ziren saltzen". Hain zuzen ere, "Expresion Sonora"-ri esker entzun zituzten elgoibartar askok abesti hauek lehen aldiz. "Garaiko gazte jendeak orain talde ezagun eta historikoak diren hauen abestiak gurekin entzun zituen lehen aldiz. Askok bertsio originala entzun baino lehenago gurea entzuten zuten". Gaur egun, musika country-a, afrokaribearra eta jazz-a moduko estiloak dituzte gogoko taldeko kideek, baina duela 30 urteko abestiek ez dute orduko xarma galdu.



*1970ean musiko hasi berrientzako saria irabazi zuten Donostian.*



*"Expresffin Sonora" taldea kontzertu batean.*

**ARTISTA BERRIEN SARIA**

1970. urteko udaberrian Donostiako "La Voz de Españak" antolatzen zuen artista hasiberrientzako txapelketa irabazi zuten elgoibartarrek, taldea sortu eta 6 hilabete eskasera. Taldearen izena zabaltzeko balio izan zuen sariak. Baita kontzertu gehiago eskaintzeko ere, ia igandero jotzen baitzuten. Lan horietarako managerra ere bazuten, Alex Garate hain zuzen ere. Maiz bisitatzen zituzten lekuak honakoak izan ziren: Arroako "La Cabaña" (egungo Jazzberri). Eibarko "La Bolera" (Ariatza). Donostiako Ibaeta eta Mirakruz gaina eta Goierriko edo Oliteko gazteen dantza saioak. Eman zituzten kontzertu guztien gainetik, "Los Bravos" nazioartean ezagunak izan ziren taldearen telonero moduan Donostian eman zuten kontzertua da aipagarriena.

**KONTZERTUAK**

Duela 30 urteko kontzertuak ez omen ziren gaur egungo modukoak. "Kontzertuak baino dantzaldiak zirela esango genuke. Diskoteketan ez zegoen tokadiskorik, diskoak anplifikatzeko teknologiarik ez baitzegoen oraindik. Beraz, zuzeneko orkestrek betetzen zuten lan hori, eta guk orkestra hauek ordezkatu genituen. Agian hon-egatik ginen gazteriaren gustukoak, betiko orkestrekin nekatuta zeudelako. Ikusleak gustura lagatzeko sueltoan dantzatzeko kantu batzuk jo behar izaten genituen eta beste batzuk lasaiagoak, bikoteek dantza egiteko".

**OTSAILAREN 23K0 KONTZERTUA**

Otsailaren 23an Herriko Antzokian eskainiko duten kontzertua duela 30 urteko kontzertuen antzekoa izango dela argitu digute taldekideek, "c/c SOan errepertorioa berdina izango da, "Spencer Davies Group", "Stones", "Beatles", "The Animals" taldeen abestiak joko ditugu, baina baita beste batzuk ere. Berrikuntza nagusia Endika Larrañaga eta Jon Gurrutxaga elgoihartarrek gurekin batera joko dutela izango da. Endikak gitarrarekin eta sintetizadoreekin lagunduko digu eta Jonek perkusioa eta ahotsarekin".

"Expresiñn Sonora" taldeak bi urteko bizia bakarrik izan zuen, baina laga dtten arrastoa iraunkorragoa izan da, herritar askok gogoan baitu lau txima luze hauek osatzen zuten taldea. Hauek taldea berriz ikusteko irrikitan egongo dira, garai berezi haiek berriz gogora ekartzeko modu bat izan baitaiteke. Bestetik, gazteagoak izanagatik taldea ezagutzeko aukerarik izan ez dutenek orain dute aukera rockero zaharrak ez direla sekula hiltzen frogatzeko.

*Egun, Endika Larrañaga, Alfonso Gual, Paixi Garcia, Luis M. Arakistain eta Gabi Agirregomezkorta astero biltzen dira entsaiatzeko.*



# Elgoibarko kulturgintza bultzatzeko plataforma berria sortu da

## Inauterietarako ekitaldi bateratuak antolatu dituzte herriko hainbat kultur taldek

Elgoibarren kulturgintza bultzatzeko beharra ikusita, herriko hainbat taldek bat egin eta plataforma bat sortu dute. Plataforman Ekekei Antzerki Taldea, Ongarri Zine-Kluba, Ongarri Argazki Kolektiboa, Gazte Asanblada, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea, Kokoe Komiki Taldea eta hainbat partikular daude. Hala ere, kulturgintza bultzatzeko nahia duen edozeinek har dezake parte bertan.

Taldeak Elgoibarko kulturgintzan honako hutsuneak somatu ditu besteak beste: kultur jardueretara jende gutxi joaten dela, elkarte asko izan arren kulturgileak gutxi direla eta elkarteen arteko harremana eskasa dela oso. Horren aurrean hainbat helburu zehaztu dituzte plataformako kideek: Herriko kultur dinamikari bultzada ematea, taldeen arteko harremanak bultzatzea, ekimen bateratuak antolatzea eta kulturgintzaren alderdi ludikoa eta jai giroa piztea.



*Plataforma Ekekei Antzerki Taldea, Ongarri Zine Kluba, Ongarri .4rgazki Kolektiboa, Gazte Asanblada, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea, Kokoe Konziki Elkarteak eta hainbat partikularrek osatu dute.*

### Inauteriak

Plataforma prentsaren aurrean aurkeztu zuten joan den asteartean, hilaren 13an, eta inauteri jaiak aprobetxatuz, Iehen ekimenak jarriko dituzte martxan jai hauetan. Besteak beste, inauteriei buruzko hitzaldia, zine emanaldia, kale antzerkia eta erretratu rallya antolatu dituzte otsailaren 2letik 23ra bitartean. Taldeko partaide ez diren herriko beste hainbat elkartek ere antolatu ditu ekintzak inauterietarako. Beraz, izango da jaietan zerekin gozatua.





**ANTOLATZA1LEA:** ARIGERA proiektua

**NOIZ:** Martmaren 6an hasi eta asteartero (10 saio)

**IZENA EMATEKO TOKIA:** Elgoibarko Izarra ( 943 741 626 )
Udal Euskaltegia ( 943 742731 )
AEK euskaltegla ( 943 741 332)

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: otsailaren 28a

l'a'rigera
Helduen euskalduntze-alfabetatzea suspertzeko proiektua



## Plaza Txikiko eta Leku Ederreko kontenedoreak lekuz aldatu dituzte

Debabarreneko Mankomunitateak herriko hainbat portaletan jarritako ohar baten bidez, zabor bilketan aldaketak egongo direla jakinarazi nahi die herritarrei. Karga lateral sistema berria dela-eta Plaza Txikian eta Leku Ederren zeuden zaborrontziak lekuz aldatu dituzte. Beraz, aurrerantzean inguru horretako bizilagunek taxi geltoki ondora joan beharko dute beraien zabor poltsak botatzera, bertan jarri baitituzte kontenedore berriak.

## Rosa Bilbaok irabazi du Txankakuaren Gabonetako zozketako lehenengo sarla




Joan den otsailaren 12an, astelehenean banatu zituen Txankakua Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak. Gabonetan egindako zozketako sariak. Guztira 300.000 pezeta izan ziren erosketa txeke bidez irabazleei emandakoak. Saririk potoloena, 150.000 pezetakoa, Rosa Bilbaorentzat izan zen. Gainontzeko sarituak honako hauek izan ziren: Izaskun Uriguen (75.000 pta.), Judith Loiota (50.00(l pta.) eta Susana Gonzalez (25.000 pta.). Zorionak irabazleei eta ahalik eta ondoen gasta dezatela jasotako dirua.



## Sigmako industrialdean aparkaleku publikoa jarriko dute

Sigmako industrialdea berritzen ari dira eta enpresentzako lekua egokitzeaz gain, Sigmako zubiaren ezker aldean industrialdeko aparkalekura joateko eskilarak egin dituzte. Udaletik adierazi digutenez "momentuz pribatua da, baina publiko egingo dugu aurki, Olasokoa bezala. Gero, enpresa bakoitzak eraikinaren aurreko partean erreserbatutako aparkalekuak izango ditu". Aparkalekua jaclanik autoek erabiltzeko moduan jarri dute, baina bada beste proiekturik ere: "Aparkalekura joateko zubi bat egin nahi dugu', esan digute Udalean.

# INAUTE RIAK 2001

*Herrian kulturgintza bultzatzeko plataforniak eta herriko beste hainbat elkartek honako ekintzak antolatu dituzte inauteri jaietarako:*

OTSAILAK 21, asteazkena

**20:00** Euskal Herriko inauteri herrikoiak hitzaldia. Kultur Etxean.

**OTSA1LAK** 22, osteguna

**15:30** Pilar Ikastetxekoen kalejira King-kong-etik Plazara.

**21:30** Zine emanaldia "Orfeu".

OTSAILAK 23, **ostirala**

**19:30** KaIe Antzerkia "Rekolore".

**22:30 Kontzertua** Herriko Antzokian. "Expresiein Sonora".

**OTSAILAK 24, larunbata**

**17:00** Karaokea eta mozorroen desfilea Plazan (Atxutxiamaika).

**19:00 "Mauxitxa"** txarangaren kalejira.

**22:00 Dantzaldia Plazan.** "La ferreteria del son".

**23:00** "Mauxitxa" txarangaren kalejira.

**24:00 Mozorro lehiaketa Plazan.** (Gurutze Gorriko Gazteak)

**OTSAILAK 25, igandea**

**18:00-21:00** Dantzaldia Jubilatuen Etxean "Gelatxo" taldea.

OTSAILAK 27, asteartea

**16:30** Mozorroen elkartzea Plazan.

**17:00** Pailazoak "Korri, xalto ta brinko".

**18:00** Suzko zezena Plazan.

**18:30 "Mauxitxa" eta "Auskalo"** taldeekin kalejira.

**18:00-21:00** Dantzaldia Jubilatuen Etxean "Gelatxo" taldearekin eta mozorro lehiaketa.

2001 -II-1 6

**Aspaldi honetan lapurreta ugari izan da herrian**

# NEURRI BEREIRIK HARTZEN AL DUZU LAPURRETEN AURREAN?



### MARI LOLI TRIGUEROS

**57 urte, kupoi saltzailea**

Bai, noski. Atea giltzaz isten dut bizilagun bati lapurreta egin zioten-eta, eta ahaztu artean horrela jarraituko dut.

### JUAN KRUZ SASIAIN

**38 urte, irakaslea**

Ez. Ona da atia giltzakin ixtia, eta hori eitxen dot. Baliozko gauza haundirik ez dakagu, eta bestela ere ez dou neurri berezirik hartzen,






### GLOBIA IBAZ

**61 urte, etxekoandrea**

Etxetik ateratzean ate eta leihoak ongi itxita uzten ditut, eta baliozko gauzak, daukadan urrea soinean eramaten dut.

### FIDELA LEO

**54 urte, etxekoandrea**

Atea giltzaz istea da hartzen dudan neurri bakarra. Gainera, lapurtu nahi badute edozein modutara sartuko dira etxean.





### SEBASTIAN ETXABE

**72 urte, jubilatua**

Ate blindaurik ez dakat, baina beti giltziari bueltia ematen diot. Gainera dirua tarjetiakin ataratzen dotenez, etxian diru askorik ez dot eukitzen.

### JUAN BELIVIONTE

**60 urte, teknikoa**

Orain bai. Lehen solairuan bizi naiz eta leihoetan zerrailak jarri ditut, atea giltzaz isten dut, eta dirua eta bitxiak ongi gordetzen ahalegintzen naiz.



---



***IX. URTEURRENA***

*1992ko otsailaren 17an, 47 urte zituela hil zen*

***JUANIO SAN MARTIN OTEGUI "Aldai"*** *ren orohnenez*

***IX. URTEURRENEKO MEZA*** *izango da Parrokian*

*larunbatean, hilak 17, arratsaldeko 19:00etan.*

*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



2001 otsaila 16. VIII urtea/351. zkia

# Gaztia BaRRen

Gaztia NAIZ



NEska gaztEak bandan ELKARRIZKETA GaztEak eta sexualitat E ANDER GARATE

Firebird
BILL STEER

r

ill Steer gitarrajole eta abeslariaren proiekturik berriena ~ltrgu "Firehird". Steer Birmmffiaiiteko "Napalm Death" taldearekin egin zen ezaguna eta Izerora, "Careass" sortu zuen. Metal gogorra jorratu zuen bi taldeetan. Egitasmo herri honek ez du zerikusirik aurreko lanekin. Jarraitzaileen harridurarako rock klasikoa da nagusi disko guztian. CD honetan metal jatorria duten beste hi musikari ditu lagun: Leo Smee (Cathedral t, haxuan eta organuan, eta Ludwig Witt t Spiritual Beugars) hateria eta perkusioan.

u

Ummetik datozen gitarra doinuekin ematen digute ongietorria "suzko txoriek". "Meantime"-ekin diskoa hasieratik janzten da 70eko hamarkadako erritmo eta szitarra dointtekin. "Torm Down"-en lehen notek "Deep Purple" dakarkigute gogora, eta titulua antzekoa hada ere, ez du zerikusirik Sonny Thompsonen "I Tore Down" kantarekin. Dena den, hada hertsiorik lan honetan. "Traffie"-eko Jim Capaldi eta Stevie Winwooden "Stranger To Hituser. kasurako. "BoIlard"-ekin psikodeliaren munduan murgiltzen gara. Diskoa "Throuszlt The Fields"-ek isten du. enitmo Iasai eta indartsuak uztartzen dimen kanta.

Metal korrometik rock klasikontko jauzia eman dute. Izan ere, hainhat musika estiloren hazia baita. Hardrock zaleak ongi asetzeko moduko lana da "Firebird".

**Jon Currutxaga**




## PATRICIA CANSECO, MIRIAM GARCIA eta NAGORE

# "EtxEan baclitugLi uOilrit dugu oraingo musika

**UMETAN HASI OHI DA MAK1NA BAT ELGOIBARTAR SOLFEOAN. ETA ONDOREN INSTRUMENTU BAT AUKERATU ETA HURA IKASTEARI EKITEN DIOTE BATZUK. BAINA MUSIKA TRESNA BAT IKASTEAK DEDIKAZIOA ESKATZEN DU, ETA ALBO BATERA LAGATZEN DUTENAK ASKO DIRA. BADA, ORDEA, BEHAR DUEN ADINA DENBORA ESKAIN1 ETA AURRERA JARRAITZEN DUENIK ERE. HORIETAKO HIRU DIRA NAGORE ESCUDERO, PATRICIA CANSECO ETA MIRIAM GARCIA. 17, 16 ETA 18 URTE DITUZTE ETA BIK KLARINETEA JOTZEN DUTE, BESTEAK. ALDIZ. FLAUTA. JOAN DEN IGANDEAN EGIN ZUTEN ELGOIBARKO MUSIKA BANDAREKIN DEBUTA ETA ESTREINAKO ALDI HORREN OSTEAN BERAIEKIN HIZKETAN IZAN GARA.**



**Pasa den igandean egin zenuten bandarekin estreinaldia. Zer moduz joan da?**

**Patricia-** Lehen aldia uste genuen gogorragoa izango zela, baina klarineteoi ez zaigu asko entzuten, eta hasieran piska bat urduri egon arren, ongi atera zela uste dugu.

**Nolatan sartu zineten bandan?**

**Nagore-** Gazteen banda hasi zenetik bertan aritu gara hirurok zazpi urtez-edo. Gero Banda handian jendea behar zutela eta gu aukeratu gintuztela abisatzeko deitu ziguten.

**Gero eta gazte gehiago zaudete bandan. Gazteei musika mota hau gustatzen zaielako al da?**

**Miriam-** Ez dakit zergatik den. Orain haur gehiago hasten dira musika ikasten, beraz gazte gehiago dago bandan .sartzeko. Gainera, bandan jotzeko abisatuz gero joan egin behar da. Baina ez disgustora, ilusioa egin zigun deitu zigutenean.

**Nola aukeratu zenuten orain jotzen duzuen instrumentua?**

**Nagore-** Aitari musika pila bat gustatzen zaio eta sarritan jartzen zidan entzuteko. Nola aukeratu nuen ez dut gogoan, baina badakit hasieran pianoa ikasi nahi nuela, eta flauta jotzen amaitu dut.

**Miriam- Nik ez nekien** zein musika tresna jo, eta besterik gabe aukeratu nuen klarinetea.

**Patricia-** Nire Iehengusu batek klarinetea jotzen du, eta nire anaia ere hasi zen; agian beraiei ikusi eta gustatu zitzaidalako izan zen.

**Zenbat denhora eramaten duzue etxean entsaiatzen?**

Nagore-Txikitan gehiago jotzen genuen, baina orain guretzat ere denbora gutxiago dugu eta

### Udal Bandako neska gazteak

# klasikoak baina nail go ildEak EntzutEa"



musikari ere ordu gutxiago eskaintzen dizkiogu, klaseen aurretik edo gogoa dugunean jotzen dugu. Bandan hasi berriak gara eta beharbada aurrerago gehiago ikasi beharko dugu, baina oraingoz jotzen dugunarekin moldatzen gara.

**Denbora lihrean zein musika entzuten duzue?**

Nagore, Patricia eta Miriam- Etxean badaukagu musika klasikoa, baina guk beste mota hateko musika entzuten dugu. 60. hamarkadako baladak, "Marl", "Jarabe de Palo", irratia...

**Zein pieza proposatuko zeniokete bandako zuzendariari hurrengo kontzerturako?**

Patricia- Niri pelikuletako soinu bandak asko gustatzen zaizkit.

Nagore- Nik ez ditut soinu bandak gustuko. Gainera, uste dut bandak jotzeko beste pieza batzuk egokiagoak direla, klasikoagoak. Banda txikiarekin jo izan ditugu pieza berriak eta niri ez zaizkit gustatu.

**I,agunak joaten al dira zuen kontzertuetara?**

Miriam eta Patricia- Ez, ezta pentsatu ere.

Nagore- Nire lagun batzuk bai, ez dakit barre egitera edo entzutera baina etortzen dira noizean behin.

**Nola animatuko znukete jende gaztea bandaren kontzertuak entzutera joateko?**

Nagore, Patricia eta Miriam- Orain gu bertan gaudenez, zer esango diegu-ba, polita dela. Eguna ere ez da gazteentzat egokiena, kontzertuak igandetan baitira, haina esango genieke une entretenigani bat pasatzeko ez dagoela hain gaizki, eta noizean behin bada ere etotizeko banda entzutera.



## j4icErEn abEnturak lurralde miresgarrian

### LEWIS CARROL

Aliceren abenturak lurralde miresgarrian" litcratura fantastikoaren ast at da. Bere egilea Carroll izan zen. Hau, ordea, ez zen here henetako izena. Ch. 1.. Doggsonek goitizen hori erabili zuen lihuru hau sinatzeko. lngeles hau ogibidez matematika irakaslea zen eta hadirudi bere ikasleetako batek. Alice izeneko hatek. hain zuzen ere, eskatuta idatzi zuela ipuin hau, lehendabizi hari ahoz kontatu ,htean.

lzenburuak azaltzen duen hezakt. Aliceren ahenturak aurkituko ditugu liburuan. Alicek bidaian pertskmaia bitxi bat baino gclnagorekin cgingo topo. untxi zuriarekin, mart bko erbiarekin... et:t behin baino gehiagotan irribarrea eragingo digute agertukc.) diren pasadizock.

Manu Lopez Gasenik itzuli du jatorrizko testua Pannela argitaletxcaren edizio honetan. Liburua hainbat diz lagunduta dator eta horrck askoz atseginagoa egiten tlu irakurketa.

**Jon Eugi**

kurri



# r EE 'arrEra

**Egungo gizartEan, gEro Eta informazio gEhiago daukagu. Hala ErE, badira gai batzuk oraindik crE "tabuak" izatEn jarraitzEn dutEnak. sexualitatEa, EsatErako. GazteEn artEan, adibidEz, gero Eta lasaiago Eta askatasun osoarEkin hitz EgitEn da sExualitatEaz, baina bEnEtan aldatu al dira bEraiEn jarrerak Eta jokabidEak sExualitatEarEn aurrean. (Eta gurEak...)**

***Datorren astean sexu heziketari buruzko programak eramango dituzte aurrera Elgoibarko Institutuan Lahia Sexologia Taldea osatzen duten Iratxe Otxoa, Eli Moreno eta Silvia Ubillos psikologo-sexologoak. Hori aprobetxatuz, Eli eta Iratxerekin egon gara eta beraiek azaldu dizkigute gazteen eta sexualitatearen arteko erlazio horren gorabeherak. Orrialde hauetan gaia orokorrean aztertuko dugu, baina ondorengo gazte gehigarrietan, lantzean behin, gazteei interesatzen zaizkien sexualitateari buruzko gai zehatzetaz hitz egingo dugu.***

Hiru urte jarraian daramatza Lahia Sexologia Taldeak Elgoiharren sexu programak aurrera eramaten. Ikastetxe, aisialdi talde, gaztetxe, emakume talde, irakasle nahiz gurasoekin egon ohi dira eta bi orduko saioak egiten dituzte normalean. Ikastaro bakoitza 6 edo 10 ordura luza daiteke. Beraiek eskaintzen dutena ez da sexuari buruzko konferentzia bat; talde dinamiken bidez egiten dute lan, ondoren gazteek jarrerak landu ahal izateko.

## JARRERA POSITIBOA

Hasiera batean oso jarrera defentsiboa azaltzen dute orokorrean ikasleek gai hauen aurrean, eta farrea izan ohi da erreakzio naturalena. Programaren dinamikan sartzen doazen heinean, konplexurik gabe egiten diete aurre gaiei "Nahi eta nahi ez, sexualitateak oraindik tabu bat izaten jarraitzen du eta orokorrean, jendea urduri jartzen da horrekin, baina gero positiboki erreakzionatzen dute", esan digu Iratxek.

## KONTRAESANAK

Gazteak ispilu baten aurrean jarriko balituzte bezala sentiaraztea nahi dute eta norberaren erreakzioak ikus-



# ua 1;4'9tfarEll aurrean



*Iratxe Otxoa eta Eli Moreno psikologo-sexologoak.*

tea. Gazte askorekin egon ondoren, piskanaka beraien jokabideak ere ezagutzen joan dira eta kontraesan ugari dituztela ikusi dute. "Gaur egun modan dago emakumeak masturbatzeko eskubidea dutela esatea, edo homosexualitatearen alde zaudela edota ekologista zarela... Gazteek ere horrelako diskurtsoak jasotzen dituzte, baina gero, horri buruz hitz egiterakoan, nesken gehiengo bat inoiz ez dela masturbatu konturatzen gara; askok eta askok emakumeak nola masturbatzen diren ere ez dakite eta horri buruz hitz egiteko ere arazoak dituzte. Esaten dutena eta benetan

**"Gazteak sExuari buruzko informazio gEhiago dutE baina bEraiEn jarrErak Eta jokabidEak EZ dira asko aldatu"**

egiten dutena ez datoz bat" dio Elik. Programa honen helburua ez da denak masturbatu behar direla adieraztea, bakoltzak esaten duenaren eta benetan bere gorputza nola sentitzen duenaren arteko diferentzia alaltzea baizik. "Hasiera batean oso jarrera "progreak" azaltzen dituzte baina gero, egoera desberdinen aurrean gauzak zeharo bestelakoak dira.

